



HEDABIDEAK 2016-2018ko DEIALDIA
Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio
orokorreko aldizkariak zein aldizkari espezializatuak: kostu estandarrak

Euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatzeko 2016-2018ko deialdira bilduriko egitasmoen aurrekontuak arazteko prezio estandarrak finkatu dira; horien artean, Euskal Autonomia Erkidego osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak zein aldizkari espezializatuenak.

Batetik, sorkuntza eta funtzionamendu kostu estandarrak finkatu dira (*sorturiko orrialdeko* edo orrialde originaleko).

Bestetik, inprenta kostuak eta zabalkunde kostu estandarrak finkatu dira. Inprenta kostuei dagokienez, *banatutako orrialdeko* kostu marjinalak ezarri dira (ondoren, koloreen arabera biderkatzaileaz doitu beharrekoak). Eta zabalkunde kostuen esparruan, azkenik, *aleko* kostu marjinalaren prezioak finkatu dira, etxez etxeko zabalkundea edo posta bidezkoa den kontuan izanik.

SORKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDU KOSTUAK		
Ezaugarria	Aukera-aniztasuna	Sortutako orrialdeko kostu marjinala
DIN-A4 Orrialdea	EAE mailako informazio orokorreko aldizkariak	246 € - 295 €
	Aldizkari espezializatuak	
	Komikiak	492 € - 590 €

INPRENTA ETA ZABALKUNDE KOSTUAK		
Ezaugarria	Aukera-aniztasuna	Kostu marjinala
Inprenta kostuak		
Botaldia zenbakiko	10.000 aletik gora	0,0101 € banatutako orrialdeko
	5.001etik 10.000 aletara	0,0121 € banatutako orrialdeko
	1.001etik 5.000 aletara	0,0121 € - 0,0346 € banatutako orrialdeko
	1.000 ale arte	0,0346 € banatutako orrialdeko
Koloreen trataera	Zuri-beltzean	(bider) X 0,74
	Azala koloretan, nagusiki zuri-beltzean	(bider) X 0,82
	Koloreen trataera: 4+4	(bider) X 1,09
Zabalkunde kostuak *		
Zabalkundea	Multzokako zabalkunde masiboa	0,109 € aleko
	Posta edo harpidetza bidezko zabalkundea	0,44 € aleko

Tabloide formatuan argitaratutako aldizkariei eguneroko prentsari dagokion arazketa modua aplikatuko zaie.

Haurrentzako aldizkarietan, komikiek duten pisuaren arabera, egokitzapenak egingo dira sorkuntza- eta funtzionamendu-kostuetan.

* Zabalkundea bi modutan edo gehiagotan egiten denean, egokitzapenak egingo dira kostuetan.

Gasteizen, 2016ko uztailaren 21ean

Jokin Azkue Arrastoa
Euskara Sustatzeko zuzendaria